



2002/01/18ko prentsa-oharra

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA) 2001eko 4. hiruhilekoa

ENPLEGUAREN GORANZKO JOERA EZ DA ETEN 2001AREN AMAIERAN

Langabezia-tasa %10etik behera jaitsi da 2001eko laugarren hiruhilekoan

Euskal AEn, 864.000 landunekin itxi da 2001. urtea laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino % 1 gehiagorekin. Bestalde, langabezia-tasa %9,9koa da 2001eko laugarren hiruhileko honetan, baxuena 1985etik eta %10etik beherakoa lehen aldiz. Langabe-kopurua 16.400 lagun inguru jaitsi da, eta aktibo-kopuruak ere jaitsiera izan du aldi berean. Lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren aktibotasun-tasa (%53,5) ia puntu-erdia murriztu da hiru hilabeteen; 16tik 24 urte bitarteko gazteena, berriz, ehuneko 3 punturaino murriztu da aldi horretan berean.

Maximoa berriro landun-kopuruan

Urte osoko goranzko joerarekin jarraituz, 2001eko azkeneko hiruhilekoan, landun-kopuruak igoera garbia izan du Euskal AEn (9.000 lagunetik gorakoa). Zifra hori gizonezkoen (+4.800) eta emakumezkoen (+4.400) artean banatzen da. Hiru herrialde historikoetan ere islatzen da, nahiz eta Arabako igoera nabarmentzen den (+5.100); Gipuzkoan arinagoa izan da (+2.800) eta are arinagoa Bizkaian (+1.400). Hala ere, produkzio-sektoreka, aldi horretan sektore bakar bat igo da, zerbitzuen sektorea (+14.200); izan ere, lehen sektorea eta industria apenas aldatu dira, eta eraikuntza jaitsi egin da (-3.800 lagun).

Berriro ere, enpleguaren igotzea alokatuen eta kooperatiba-kideen artean gertatu da (+8.300). Landun alokatuen artean, kontratudun finkoen igoera gertatu da (+12.500), aurreko hilaren aldean; aldi baterako kontratudunak, aldiz, jaitsi egin dira (-3.900).


Langabezia-tasa %9,9ra iritsi da, duela hiru hilabete baino ia 2 puntu gutxiagora

2001eko laugarren hiruhileko honetako langabezia-tasa %9,9koa da, hau da, ehuneko 1,6 puntu jaitsi da hiru hilabeteen. Gizonezkoen langabezia-tasa ehuneko 2,3 puntu jaitsi da, %6,2ra; emakumezkoena, berriz, puntu 1etik behera jatsi da, %15,2ra.

Herrialde historikoka, langabezia-tasa kasu guztietan murriztu da, nahiz eta mailak desberdinak diren. Laugarren hiruhileko honetan, Arabako langabezia-tasa %6,1ekoa da, Gipuzkoakoa %7,5ekoa eta, azkenik, Bizkaiakoa, altuena, %12,5ekoa.

Langabe-kopurua (94.900 lagun kalkulatu dira 2001aren amaieran) 16.400 lagun jaitsi da azken hiruhilekoan. Jaitsiera talde guztietan gertatu da, baina batik bat gizonezkoen artean (-13.800), Bizkaiko Lurralde Historikoan (-7.500) eta 2 urte edo gehiago lan bila dabiltzan langabeen artean (-6.600), bai eta lehen enpleguaren bila dabiltzanak ere (-6.400). Gainera, 16 eta 24 urte bitarteko (-6.100) eta 25etik 44 urte bitarteko (-6.800) langabeen artean ere, eta, ahaidetasunari dagokionez, seme eta alaben artean (-11.300).

1. grafikoa: biztanleria landunaren joera, 1985etik



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta, BJA

2001eko azken hiruhilekoan, kalkulatu da 716.000 bat etxegune daudela Euskal AEn; horietatik, laurden batek ez dute aktibo bat ere. Aktibo guztiak langabezian dituzten etxeguneak 21.800 bat dira (etxeguneen % 3a); kopuru hori ia aurreko hiruhilekokoaren adinakoa da. Azkenik, aktibo guztiak lanean dituzten etxeguneak %60tik goraxe dira (aurreko hiruhilekoan baino 16.800 gehiago).

Landun-kopurua ia %4 igo da azken urtean

Urte arteko aldakuntzek (2001eko laugarren hiruhilekoa, aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean) 2001eko azken hiruhilekoari buruz aipatukoen norantz berari jarraitzen diote. Landun-kopurua 30.000tik gora igo da (%+3,7), langabe-kopurua 23.500 jaitsi da (%19,8 langabe gutxiago), eta azken hamabi hilabeteetako langabezia-tasan ehuneko 2,5 puntuko jaitsiera izan da.

Landun-kopurua, emakumeen artean (+29.500 landun), zerbitzuen sektorean (+30.400), alokatuen artean (+29.600) eta mugarik gabeko kontratudunen artean (+30.600) ia soilik igo da.

2001ean, langabe-kopurua % 20 jaitsi da

2001aren amaieran, langabe-kopurua 100.000tik beherakoa da, eta jaitsiera 23.500 bat pertsonakoa izan da urtean zehar, hau da, %19,8 gutxiago. Langabezia-tasan, horrek ehuneko 2,5 puntu hartzen ditu. Jaitsiera hori aztertutako talde guztietan islatzen da (45 urte eta gehiagoko langabeen taldean izan ezik). Aipatzekoa da 2 urte edo gehiago lan bila dabiltzan langabeen (-18.800) eta langabe doien –lana bilatzeaz gain, beste jardueraren bat egiten ez dutenen– jaitsiera (-18.600).

Herrialde historikoka, jaitsiera erlatiboa berdintsua da Bizkaian eta Gipuzkoan (%15etik gorakoa), baina Araban %40tik hurbilekoa izan da azken urte horretan. Hori langabezia-tasen aldakuntzan islatu da: Gipuzkoan ehuneko 1,7 puntu jaitsi da langabezia-tasa; Araban, berriz, 4,1 puntu.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA

	2001eko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	%	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.795,0	100,0	+2,8		+6,7	
AKTIBOAK/ AKTIBOTASUN TASA	959,6	53,5	-7,2	-0,5	+7,2	+0,2
Gizonezkoak	565,5	65,0	-9,0	-1,1	-11,9	-1,6
Emakumezkoak	394,1	42,6	+1,7	+0,1	+19,1	+1,9
LANE LANDUNAK	864,8	90,1	+9,3		+30,8	
Gizonezkoak	530,4	61,3	+4,8		+1,3	
Emakumezkoak	334,4	38,7	+4,4		+29,5	
Araba	135,0	15,6	+5,1		+7,2	
Bizkaia	439,3	50,8	+1,4		+16,3	
Gipuzkoa	290,5	33,6	+2,8		+7,3	
Nekazaritza	13,4	1,5	-0,9		-4,2	
Industria	258,3	29,9	-0,3		+6,4	
Eraikuntza	73,4	8,5	-3,8		-1,8	
Zerbitzuak	519,7	60,1	+14,2		+30,4	
LANGABEAK/ LANGABEZIA-TASA	94,9	9,9	-16,4	-1,6	-23,5	-2,5
Gizonezkoak	35,1	6,2	-13,8	-2,3	-13,2	-2,2
Emakumezkoak	59,8	15,2	-2,6	-0,7	-10,2	-3,5
16 - 24	20,5	22,8	-6,1	-4,1	-10,0	-5,3
25 - 44	57,4	10,0	-6,8	-1,1	-15,4	-2,7
45 eta gehiago	17,0	5,8	-3,5	-1,3	+2,0	+0,2
Araba	8,7	6,1	-6,5	-4,4	-5,7	-4,1
Bizkaia	62,7	12,5	-7,5	-1,3	-12,7	-2,6
Gipuzkoa	23,5	7,5	-2,4	-0,8	-5,0	-1,7
Lehen enplegu bila	16,1	17,0	-6,4		-15,2	
2 urte edo gehiago enplegu bila	24,9	26,2	-6,6		-18,8	
EZ-AKTIBOAK EZ-AKTIBOTASUN TASA	835,4	46,5	+10,0	+0,5	-0,5	-0,2
ETXEBIZITZAK	716,0		+9,8		+36,7	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	518,0	72,3	+2,4		+21,9	
- Guztiak landunak	438,7	61,3	+16,8		+38,1	
- Guztiak langabeak	21,8	3,0	+0,4		-3,8	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	198,0	27,7	+7,4		+14,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

	Tel:+34-945-01 75 00. Fax:+34-945-01 75 01. E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Elena Goni Rementeria Tel:+34-945-01 75 33. Fax:+34-945-01 75 01. Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
--	---